



# MUGI GAITEZEN

## geure eskubideen alde

Badira hiru urte Gobernu desberdinek murrizketen bideari ekin ziotela. Neurri hauekin langabezia, desberdintasun eta pobrezia handiago baino ez dago. Zerga-herstura, aurrekontu-diziplina eta doitze-neurriek botere ekonomikoa baino ez dute faboratzen.

Nazioarteko instituzio ekonomikoek (MB, NDF, EBZ) eta Europar Batasunak (Sarkozy-Merkel buru direlarik) euro zonaldeko ekonomiek jarraitu beharreko norabidea ezarri dute. Azken gertaerek eta datu ekonomikoek garbi eta argi adierazten dute ez garela kritikik ateratzen ari, aitzitik, atzeraldi berri batean gaudela azken atzeraldiko hutsak ordaintzen ari garenean.

Nahiz eta badakiten krisi ekonomikoa eta soziala areagotzen ari dela, hamaika borroken ostean lorturiko eskubide urri horiek kendu nahi dizkigute. Zerbitzu publikoak pribatizatzen jarraitu nahi dute, inbertsio eta negozio pribatuari eremu berriak irekiz. Gizartearen gehiengoan aurkako azpigerra sozial bat da, diruaren boterea dutenek deklaraturako gerra; botere honek instituzio politikoak otzandu ditu euren aginduak uneoro bete dituzten.

Egoera hau ulertzeko kontutan hartu behar dugu aspalditik inposatzen ari diren zerga-kontraerreforma. Indarrean den zerga-politika erregresiboa da eta errenta handi eta kapitala faboratzen ditu. Lan errentek gehien ordaintzen dutenak dira eta zeharkako zergak igo baino ez dituzte egiten. Zerga-bilketaren zama klase popularren bizkarretik dago.

Zerga-bilketari dagokionean Europako azken tokian gaude; Hego Euskal Herrian BPGaren %29,3a biltzen da, Europar Batasunean, aldiz, bataz beste, %38,4a; honek esan nahi du Hego Euskal Herriko altxor publikoek 7.500 milioi euro gutxiago biltzen dutela. Diru hau, batez ere, ez da biltzen kapitalaren errentak, enpresa-etekin eta ondaretzarrekiko zerga-arduragabekeriarengatik.

Diru-kopuru horrez gain, errenta eta enpresa handiek egiten duten zerga-iruzurrarengatik Foru Ogasunek urtero biltzen ez dituzte milioi euro horiek daude. 10.000 milioi euroz ari gara; diru-kopuru honek eta zerga-etekinetak 7.500 milioiek suspertze ekonomikorako politika indartsu bat ez ezik, beharrezkoa den gizarte politikaren garapenerako urrats garrantzitsu bat ere lirateke.

Denbora luzea zergak barkatzen gehiago dutenei, zerga-iruzurra jazartzeko borondate ezak eta bilketan krisi ekonomikoak izan duen eraginak egoera korapilotsuan jarri gaituzte; hau dela eta, klase politikoak kapitalaren aldeko soluziobidearen alde egin du. Hots, aurrekontu publikoak murrizten dira errenta handi eta kapitalak gehiago zergapetzearen bidetik gehiago biltzeko aukeraren kontra. Injustu eta atzerakoi den zerga-politika honen bidez, inolako gizarte partehartzerik gabe erabaki egin dena, krisi garaian finantziatzeko den beste baliabide den zor publikoaren merkatuak jasaten duen presiotzarra eta oso seahaztutako ideologia batekin, klase gobernatzailea eskubideak murriztu baino ez ditu egiten.

**MANIFESTAZIO**  
**NAZIONALA** otsailak 4 de febrero  
18:00 • Sagrado Corazón • BILBO